

14. NAO - 2015ko urtarrilaren 22a

254. ALDIZKARIA - 2025eko abenduaren 23a (tarifaren aldaketa)

25. ORDENANTZA: ORDENANTZA FISKALA, UDALEKO GAZTERIARENDAKO BALIABIDEEN ZENTROAK ANTOLATZEN DITUEN IKASTARO EDO JARDUERA SOZIOKULTURAL NAHIZ AISIALDIKOETARAKO SARRERA, IZEN EMATE EDO MATRIKULAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUENA

Oinarria

1. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen lehen tituluko III. kapituluko 2. ataleko 2. azpiatalean xedatuari jarraituz ezarri da ordainarazpen hau, eta haren 28. artikulua baimenaren babesean.

Kontzeptua

2. artikulua. Prezio publikoak galdatuko dira, Udaleko Gazteriarendako Baliabideen Zentroak urtean antolatzen dituen ikastaro edo jarduera soziokultural nahiz aisialdikoetarakoetan parte hartu edo horietara joateko eskubidea ematen duten sarrera, matrikula edo antzeko beste edozein kontzeptu dela eta, prezio publikoak aplikatzeko beste ordenantza batzuetan sartuta ez daudenean.

Kudeaketako eta diru-bilketako arauak

3. artikulua. Prezio publikoaren zenbatekoa ordainduko da izen-ematea edo matrikula egitean.

4. artikulua. Prezio publikoak ikastaroa edo jarduera antolatzeko oinarriek kasu bakoitzerako ezarritako moduan eta tokian ordainduko dira.

5. artikulua. Prezioa ordaintzera behartuta dagoenari leporatu ezin zaizkion arrazoiak direla eta, ikastaroa edo jarduera egiten ez bada, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio. Gainerakoetan, behin betiko inskripzioa eginda, ordaindutako zenbatekoa ez da itzuliko.

6. artikulua.) Baldin izena emateko epea bukatu postu librerik gelditzen bada, 30 urtetik gorako eta 35 urte bitartekoei eskaintzen ahal zaizkie, eta lehentasuna emanen zaie Barañainen erroldatutakoei, betiere ikasturte osoa ordaintzen badute.

Tarifak

7. artikulua. Aplikatu beharreko tarifek zerbitzuaren zuzeneko kostuaren %50 ordainduko dute gutxienez; alegia, irakaslearen edo zerbitzua ematen duen enpresaren kostua. Salbuespena izanen dira Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren mendeko Gazteria Programak antolatutako jarduerak (eranskinean ageri dira).

Saiakera eginen da ikastaroek 20 ordu iraun dezaten eta, betiere, orduen eta zenbatekoen batezbestekoa eginen da, ikastaroen edo lantegien iraupenaren arabera, aurreko taula kontuan hartuz.

8. artikulua. Ordenantza honen eranskinean azaltzen diren tarifak aplikatuko dira, edo kasu bakoitzean Tokiko Gobernu Batzarrak ezartzen dituenak, betiere garatu behar den jarduerari egokituak, eta, hala bada, balio erantsiaren gaineko zergaren kuota ere izanen dute.

9. artikulua. Halako ikastaro berariazkoak badira, ezaugarri bereziak dituztenak, 10 erabiltzaileri baino gehiagori batera ezin zaienean eman, ez dira tarifa hauen barrenean sartuko. Horietan orduaren prezioak gutxienez ikastaroaren kostuaren %50 estali beharko du.

10. artikulua. Inskripzioetan egindako diru-sarrerek markatuko dute jarduera bakoitzeko parte-hartzaileen gutxienerako kopurua; gutxienez ere monitorean kontratazio-kostuaren %50 estali beharko dute.

TARIFAK

| ORDENANTZA FISKALA, PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUENA SARRERA, IZEN-EMATE EDO MATRIKULETARAKO, BARAÑAINGO UDALEKO GAZTERIARENTZAKO BALIABIDEEN ZENTROAK ANTOLATZEN DITUEN IKASTARO ETA JARDUERA SOZIOKULTURALETARAKO ETA AISIALDIKOETARAKO | 2026KO TARIFAK (eurotan) | |
|---|------------------------------------|-------------------------|
| | Erroldatuak | Erroldatu gabeak |
| Gazteriaren Alorreko ikastaro eta jardueren tarifak | | |
| Ikastaroak: prezioa/ordua | 2,00 | 4,00 |
| Jarduerak | Jardueraren kostuaren arabera | Erroldatuek halako bi |
| Tarifak, Gizarte-Zerbitzuen Mendeko Gazteentzako Programak antolatutako jardueretarako | | |
| Jarduera | 2026ko tarifa (eurotan) | |
| Osasuna sustatzeko jarduera berariazkoak (Joan-etorri zerbitzua kenduta) | Doan | |

| Baliabide propioekin egiten diren jarduerak eta kostu erantsirik ez dutenak edo gauzatzeko material txikia erostea behar dutenak (eskulanak, Topalekuko lantegiak...) | Doan | | | | |
|---|---|-------------------------------|------------------|--------------------------|--------------------------------|
| Elkarte edo talde egituratuak (Break, BMX, Grafiti...) sustaturiko jarduerak | Doan | | | | |
| Udalak antolatutako txapelketak, lehiaketak eta sariketak | Doan | | | | |
| Prebentzio jarduera selektiboak, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak proposatutako pertsona kaltebera edo arrisku handikoentzat, nahiz eta izen-emate irekiak ere onartu talde normalizatuak osatzeko (eskola-laguntza, "Barañainek harrera egiten dizu"...) Aisia osasungarriko jarduera espezifikoak | Doan | | | | |
| Talde naturalek proposatutako jarduerak (Magic, areto-futbola...): kuotek jo behar dute haien gastuen %50 berdintzera, eta gutxienez ere kostuaren %25era ailegatu behar da jarduera gauzatzeko | <table border="1"> <thead> <tr> <th>Kuota sinbolikoa</th> <th>Kuota sinbolikoa</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>Erroldatuak, 2,50 - 6,00</td> <td>Erroldatu gabeak, 5,00 - 12,00</td> </tr> </tbody> </table> | Kuota sinbolikoa | Kuota sinbolikoa | Erroldatuak, 2,50 - 6,00 | Erroldatu gabeak, 5,00 - 12,00 |
| Kuota sinbolikoa | Kuota sinbolikoa | | | | |
| Erroldatuak, 2,50 - 6,00 | Erroldatu gabeak, 5,00 - 12,00 | | | | |
| Jaietara joateko bus zerbitzua ("Joan-etorri") | <table border="1"> <thead> <tr> <th colspan="2">Jardueraren kostuaren arabera</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>Erroldatuak, 2,25 - 5,10</td> <td>Erroldatu gabeak, 7,70 euro</td> </tr> </tbody> </table> | Jardueraren kostuaren arabera | | Erroldatuak, 2,25 - 5,10 | Erroldatu gabeak, 7,70 euro |
| Jardueraren kostuaren arabera | | | | | |
| Erroldatuak, 2,25 - 5,10 | Erroldatu gabeak, 7,70 euro | | | | |